

IKASTETXEA	Paz de Ziganda ikastola		67 1c 03
IZENBURUA	Energiaren erabilera gure gizartean	MAILA	DBH 2. maila
IRAKASLEA	Miren Agirre	IKASGAIA	Natur Zientziak

## DBHrako Irakurketaren Ulermenerako Hobekuntza Plana.

### 1. ATAZA

#### TESTUA

#### ENERGIA GURE GIZARTEAN

##### ENERGIAREN ERABILERA GURE GIZARTEAN


Energia ezinbestekoa da gizarte teknologikoaren funtzionamendurako.

Energia-kantitate oso handia erabiltzen da autoak mugiarazten, etxeak berotzen, produktuak egiten eta bestelako hainbat jardueratan.



Gizarte industrializatuetan, energia-kontsumo guztiaren % 45 industrian erabiltzen da; mugitzeko eta garraioetarako erabiltzen da % 22; eta etxean beste % 18, gutxi gorabehera.

Gure gizartean, honela banatzen da energiaren kontsumoa (Euskadiko datuak dira):



Horretaz aparte, energiaren kontsumoa ez da munduko toki guztietan berdina, alde handiak daude herrialde batetik bestera.

Energia elektrikoaren norbanako kontsumoa  
(1 Kwh=3 600 000 J = 3'6 10<sup>6</sup> J)

Lurraldea	Kontsumoa (Kwh)
Norvegia	25.000
Kanada	15.000
AEB (Estatu Batuak)	12.000
Japonia	7.300
Euskal Autonomia Erkidegoa	7.300
Frantzia	6.300
Alemania	5.600
Espainia	4.200
Txina	740
India	450
Nigeria	85
Etiopia	22

Gure gizarte teknologikoak orain bezala funtziona dezan, ikatza, petrolioia eta gas naturala erre behar da, oso kantitate handitan gainera. Gutxiago bada ere, erregai nuklearrak ere erabili behar dira; baita energia hidroelektrikoa eta eolikoa ere.

Erregai horiek kantitate handitan erretzea kezka garria al da? Bi arazo nagusi daude, jarraian azalduko dugun bezala.

Lehenik eta behin, erregai fosilak mugatuak dira. Petrolioia, esate baterako, ehun urte barru agor daitekeela esaten dute.

Bigarrenik, erregai fosil gehiegi erabiltzea kaltegarria da ingurumenerako; kalte horien erakusgarri da, esaterako, berotze orokorraren efektua.

#### Zergatik erabiltzen dugu hainbeste energia?

Arrazoi bat da energiaren erabilera ez dela oso eraginkorra. Gaur egun daukagun bizitza-mailari etsi ezinik ez legoke pertsonako energia gutxiago erabilita.

<b>JATORRIA</b>	
EGILEA	Juanjo Berasategi, Rafa Muñoa, Josune Murua, Joxepo Terés
IZENBURUA	ENERGIAREN ERABILERA GURE GIZARTEAN
ARGITALETXEA/Webgunea	ELKAR argitaletxea
URTEA	2004
ORRIALDEA (K)	36
ISBN	84-9783-094-6
<b>TESTU-MOTA</b>	
OINARRIA	inprimakia
FORMATOA	Mistoa
MOTA	Azalpena /argudioa
ERABILERA	Publikoa

## ESTRATEGIAK

### IRAKURRI BAINO LEHEN

1.- Ikaslearen aurre-ezagutzak aktibatzeke, energiaren inguruan zer dakiten hausnartzera bideratuko ditugu, honelako galderen bidez:

- Zer da energia?
- Mota desberdinak.
- Kutsadurarekin duen lotura.
- .....

2.-Hipotesiak egin: Izenburua irakurri ondoren izenburuak zer iradokitzen digun planteatuko diegu ikasleei. Zeri buruz hitz egingo ote duen testuak.

### IRAKURRI BITARTEAN

1.-Informazio garrantzitsua markatzeko estrategia materialak: Testua hobeki ulertzeko gako diren hitzak azpimarratuko ditugu eta beharrezkoa izanez gero, horiei buruzko informazioa eman. Esate baterako, energia neurtzeko unitateak: 1Kwh, joule...

2.-Nork bere buruari galderak egitea. Zer da “erregai”? Hemen etenalditxo bat egingo dugu kontzeptu honi garrantzi berezia emanez.

### OHARRAK

### IRAKURRI ONDOREN

1.-Aurreko estrategietan egindakoa aintzat hartuta, ikasleei inferentziak egitea proposatuko diegu, energia hobeki erabiltzearen gainean.

2.-Laburbiltze partzialak egin. Testua osotasunean harturik, informazioa hiru ideia nagusitan

**banaturik agertzen direla ohartaraziz:**

**-Kontsumoaren inguruko datuak: grafikoa-taula.**

**-Gure gizarte teknologikoak erabiltzen dituen energia iturrietan erreparatu.**

**-Energia kantitate handitan erabiltzearen ondorioak: agor daiteke, kutsadura.**

**3.-Testua orokortasunean harturik ikasleei testuaren gaia eta ideia nagusia bereiztea proposatuko diegu: gaia energiaren erabilera izango da eta ideia nagusia energiaren gehiegizko erabilpena.**

**OHARRAK**